

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLAREN 2015 EKIN-UP
ENPRESA IDEIEN LEHIAKETA

1. LEHIAKETAREN XEDEA

“EKIN-UP” Enpresa Ideien Lehiaketa Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako (EIUE aurrerantzean) Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza Graduak (EAZ aurrerantzean) ikasleen sormena, berrikuntza eta espirtu ekintzailea garatzeko ekintzen esparruan kokatzen da.

Lehiaketak helburutzat du ekintzailatza sustatzea, eta horretarako, ikasleak eta tituludunak beren ezaguerak, gaitasunak eta esperientzia enpresa ekimenak eta negozio berriak martxan jartzeko erabiltzera animatuko dira.

Bestalde, lehiaketaren bitartez kultura ekintzailea sortuz joan nahi da, unibertsitateko eragileen arteko lankidetzatik abiatuta balioa duten proiektu berritzaileak modu iraunkorrean sortzeko baldintzak ahalbidetzeko.

2. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute negozio ideiarik izan eta aritzeko gaitasun betea duten pertsonak edo pertsona taldeak:

- Ikasleak, banaka edo taldean (hiru kide gehienez ere), baldin eta 2015/16 ikasturtean Donostiako EIUEn matrikulatuta badaude.
- 2013/14 eta 2014/15 ikasturteetan Donostiako EIUEn EAZ Gradua lortutako ikasle tituludunek.

Talde edota pertsona bakar bakoitzak negozio ideia bakar bat aurkeztu ahal du.

Sarira aurkezteak ez du esan nahi ideia enpresa bihurtzeko konpromisoa hartzen denik –nahiz eta positiboki baloratuko den alderdi hori-, baina derrigorrezkoa da alde aurretik ekintzailearen irudiarri eta negozio ideia berrien sorrerari buruz irailaren 23an eta 24an ikastegian eskainiko den 4 orduko tailer batean parte hartzea.

Hauexek izango dira lehiaketatik kanporatzeko arrazoiak:

- Dokumentazio guztia ez aurkeztea, aurkeztutakoa egokia ez izatea edo epez kanpo aurkeztea.
- Oinarrietako klausularen bat ez betetzea.
- Datu edo informazio faltsua ematea.
- Epaimahaiaren erabakia baldintzatzen ahalegintzea, edozein bide delarik.

3. NEGOZIO IDEIAREN AURKEZPENA ETA EPEAK

Negozio ideia proiektu batean islatuko da eta proiektu horrek ekintzaileak edo talde ekintzaileak negozio ideiarene xede den alorrean dituen gaitasunak ziurtatuko ditu.

Orijinala izango da eta lehiakideek egingo dute.

Eskaria:

Irailaren 1etik 18ra formalizatu behar da eskaria, behar bezala beteta (proiektuaren izena, lehiakide edo taldearen datuak (nolanahi ere, izena, kide bakoitzaren NAN edo pasaporte, telefonoa, posta elektronikorako helbidea, lehiaketan honen inguruko komunikazioetarako baliatuko dena), Eskolaren webguneko formularioaren bitartez.

Azken dokumentazioa:

Irailaren 23an eta 24an 4 orduko prestakuntza tailerlean parte hartu eta gero, negozio ideiarekin proposamen bakoitza webeko formularioaren bitartez aurkeztuko da, **2015eko urriaren 2ko 14:30ak baino lehen**, ondoren aipatuko den dokumentazioarekin batera:

- a) Behin betiko eskaeraren berrespena eta oinarriak onartzen direla adierazteko zinpeko aitortpena, Eskolaren webeko formularioaren bitartez.
- b) Proiektua "Justifikatzeko Memoria". Edozein kasutan, ez ditu 10 orrialde baino gehiago edukiko. I. Eranskinean eredia erantsi da, orientabide moduan.
 - a. Proiektuaren izena (egileak identifikatu gabe).
 - b. Ekintzailearen gaitasunak.
 - c. Merkaturatu nahi den produktuak edo zerbitzuak konpontzen dituen problemak, hau da, zein beharri erantzuten dion.
 - d. Produktua edo zerbitzua berritzaile edo baliotsu bihurtzen duten ezaugarriak.

4. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Negozio ideiak balioztatzeko, aintzat hartuko dira:

- a) Talde ekintzailea, proiektua garatzeko gaitasunak (30 puntu).
- b) Ideiaren originaltasuna eta berrikuntza maila (30 puntu).
- c) Negozioaren potentziala, garapen maila eta bideragarritasuna (30 puntu).
- d) Proiektuan erabil daitezkeen baliabideen aprobetxamendua, jasagarritasuna eta gizarte erantzukizuna (10 puntu).

5. ESKARIAK EBAZTEKO PROZEDURA

Zuzendariak ebatziko du lehiaketa hau, aurkeztutako negozio ideiak baloratzeko osatutako epaimahaiak proposatuta. Halaber, hautagaiei jakinaraziko zaie, deialdi honekin lotutako komunikazioetarako eman duten posta elektronikoko helbidera bidalita.

Epaimahaiak honako osakide hauek izango ditu:

- Zuzendaritza Taldeko ordezkari bat; Eskolako zuzendariak izendatuko du.
- ENTREPRENARI programako ordezkari bat.
- Ikastegiko irakasle bat.

Epaimahaiaren eginbeharrak eta esleipenak:

1. Lanak behin betiko onartzea.

2. Lehiakideek aurkeztutako dokumentazioa aztertu aurretik, eta egin beharreko eztabaidak egin ostean, dagokion akordioa hartuko du, behar den bezala arrazoitua, kontuan hartuta ezarritako balorazio irizpideen arabera proiektuei emandako puntuazioa.
3. Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, sortzen diren gai guztiak interpretatzea.
4. Ebazpen proposamena zuzendariari aurkeztea, oinarri hauetako 3. puntuari proiektuak aurkezteko ezarritako epea amaitu eta, gehien delarik, ondoko 30 egunetan.

Epaimahaia lanak onartzeko epea amaitu eta ondoko 7 egun naturaletan osatu beharko da.

6. SARIAK

Bi sari emango dira, honako hauek alegia:

- Lehen Sari bat: hiru lagunentzako globoan edo hegazkin txikian hegaldia edo baliokidea (dirua ez).
- Bigarren Saria: hiru lagunentzako belaontzian nabigazioa edo baliokidea (dirua ez).

UPV/EHUK, ENTREPRENARI programaren bitartez eta erabilgarri dituen bitartekoak baliatuta, konpromisoa hartzen du bere ideia enpresa bihurtzeko erabakia hartuko duten parte hartzaile guztiei dohaineko prestakuntza emateko, enpresa plana garatzeko behar diren ezaguerak berreskura ditzaten.

Aipatutako prestakuntza amaitzean, ENTREPRENARI programak enpresa berritzaile berriak zabaltzeko bere laguntza programan bertan ezarritako irizpideak betetzen dituzten proiektuak barne hartzeko aukera baloratuko du.

Saririk eskuratu ahal izateko, 100 puntutatik, gutxien dela, 60 puntu lortu beharko dira.

50 puntutik gorako puntuazioa duten lehiakideei 25 lan ordu ziurtatzen dituen ziurtagiri bat emango zaie. Ziurtagiri hori kultur jarduerengatik kredituak aitortzeko erabili ahal izango da.

7. PARTEHARTZAILEEN BETEBEHARRAK

- Lehiaketaren oinarriak onartzea eta eskaria epearen barruan egitea.
- ENTREPRENARI programak antolatutako "Nola ebaluatua/baliozkotu negozio ideia bat?" tailerlean parte hartzea. 4 orduko iraupena du aipatutako tailerrak eta irailaren 23an eta 24an eskainiko da ikastegian, 9:00etatik 11:00etara.
- Negozio ideia aurkeztea, adierazitako moduan.

8. KONFIDENTZIALTASUN HITZARMENA

Aurkeztutako proiektuen pribatutasunari eusteari dagokionez, lehiaketako epaimahaia eta proiektuen berri jakingo duten pertsonak honako era honetara tratatu beharko dute lehiakideek emaniko informazioa:

- Proiektuaren titulua emango da argitara, lehiaketan parte hartzeko aurkeztutako dokumentuan aurkezten den bezala.
- Emandako informazioa proiektuen balioztatzeko baliatuko da, ez beste edozein gauzatarako.
- Edozein kasutan, aurkeztutako informazioa ez zaie inola ere transmititu edo jakinaraziko erakunde publiko edo pribatutako kideei, egileen baimen eta adostasunik ez bada.
- Lehiakideek emaniko informaziotik abiatuta sortutako edozein dokumentu erabateko pribatutasun printzipioarekin bat etorrita mantenduko da.
- Lehiaketa garatu bitartean, bai eta gerora ere, proiektuaren tituluak eta egileek onartuko lituzketen datuak jakinaraziko dira, proiektuon behar besteko nabaritasuna lortzeko beharrezko direlarik.

9. ZIURTAPENA

Proiektu irabazleen pertsona titularrak/ek zuzendariak emaniko ziurtagiri bat lortuko du/te, irabazle izaera eta sariaren adjudikazioa ziurtatuko dituen.

10. ZABALKUNDEA

Honako deialdi hau Ikastegiko iragarkien taulan argitaratuko da eta posta elektronikoaren bidez ere igorriko zaie 2013/14 eta 2014/15 ikasturteetako ikasle eta tituludun guztiei.

11. ERREKURTSOA

Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtso aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoaren babesean.

Gorago esandakoa gorabehera, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsoa jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri lehenengoaren berariazko ebazpenik edo presuntziozkorik hartu bitartean.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetetara UPV/EHUren web gunean esleitzeko ezelako erabakirik argitaratu ez balitz, interesatuek ulertu beharko dute beren eskaria ezetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 44.1 artikuluan xedaturikoari jarraiki.